

# AITA SAN IOSE

GLORIOSOAREN

# BEDERATZIURRENA.

TOLOSA'N:
E. Lopez'en moldiztegian
1914'garren urtian.

M- 87391 | F-96190 ZRVI 3299

# AITA SAN IOSE

# GLORIOSOAREN



## BEDERATZIURRENA.

**TOLOSAN:**

Eusebio Lopez-en moldizteguian.

1901-garren urtean.

# AITA SAN IOSE

# GLORIOSOAREN

# BEDERATZIURRENA.

EGUILLEARENA DA.

**TOLOSAN:**

Eusebio Lopez en moldizteguian.

1901-garren urtean






# AITA SAN IOSE
# GLORIOSOAREN
## BEDERATZIURRENA.

---

*Beste Debozinoetan leguez onetan bere egun oneetaco abiso, ta erreguelac iaquiñac dira: zeñatu eta guero:*

### Lenengo eguna.

---

### Acto Contriziñozcoa.

Nere Iaun eta Iaungoicoa, Zugan sinisten dot, esperaten dot; eta amaten zaitudaz gauza guztiac gañ, pensatean zembat guein dozun nigatic, eta

nic zein dongaro erantzun deutseedan zeure mesedeei, lotsaz beteric, beartuten naz deadar eguitera: Erruqui zaitez Iauna, seme gaizto onegaz, barcatu eguiozuz bere bidebagaqueriac, bada lenago nai dau ill, ezen ez ostera pecatu eguiñ. Aitor dot ez dodala merezi grazi au; baña escatuten deutsute zeure aita usteco S.Ioseren merezimentuacgatic, eta zeuc nere bitarteco gloriosoa, artu naguizu zeure amparopean, eta indazu deboziño iziotua empleateco ondo une au zeure serbitsuan eta nere ari-

mearen probechoan. Amen Iesus Maria ta Iose.

**Egun guztietan asiteco Oraziñoa.**

Aita San Iose Aitalen gloriosoa, Iesus maitearen Aita ustecoa, ta Ama Biriinearen eguiazco Esposo dichosoa; alan bizitzan, nolan eriotzan zeure Debotoen Bitarteco almentsua. Baldin Iesus Iaincoaren, Ama Birginearen, ta zeure ondraraco bada, Nobena onetan guc escaten doguna; alcanzadu eiguzu grazia au, ta ezpabere Iaunari escatu eguiozu ondoen iagocuna, bere gloriaraco, zeure ondraraco, ta gueure salbaziñoraco. Amen.

Neure Iesus, Angueru guztien Iauna, gu bizi garean artean ondo gobernetea aguindu deutsezuna. Gueure guardaco Onguin onen merezimentuac ofreziten deutsudaz, eta zeure Aita usteco San Iose Gloriosoarenac zeure Ama maitearen, eta zeure Anguera Goardaco leguez eguin zenduana. Anguerulagun Iose santuaren garbitasun miragarriagaiti gueure arimetaco garbitasuna arren iguzu, Iauna: eta Nobena onetan escaten dogun mesedea, zeure gloriaraco, Santuaren ondraraco, ta

gueure salbaziñoraco baldin bada. Amen.

*Emen iru Aita gure, Agur Maria, ta Gloria Trinidade guztiz Santuaren, Iesus, Maria, ta Ioseren erreberenzian esan, ta guero:*

**Egun guztietan esaten dan azquenerako Oraziñoa.**

Aita San Iose gloriosoa, Ama Biriinearen Esposo pare baguea, Iaincoaren Semearen Aita ordeco, ta Familia sagraduen Burua, ta Aguintari bacarra. Zeure gañaldi onetan neure atseguinic andiena artuten dot; bada Iaincoac bere eche, edo Zeru bizi ataco Iaube, edo Prinzipe eguin zinduzan; eta Aita Eter-

noac bere lecuan, Aita baziña leguez, bere Seme bacarra, ta aren Ama maitea zeure contura ichi, ta zeure neque, ta izerdiacaz bien ianaria irabazteco zorioneco cargua emon eutsun. O Santu guztietan zorionecoena! Milla esquer Iaincoari Iesus, ta bere Amari zuri eguin eutsuzan mesedeagatic: eta Iaincoa Seňcho gozo eguinic zeure besoetan artu, ta ascotan emon zeuntsazan biotzeco laztan amorosoegati. Orregaiti bada, neure Aitaric onena, zeure Iesus, ta bere Amaganic, arren alcanza egui-

dazu neure pecatuen parcaziñoa, ta Iaunaren borondatea beti eguinaz baquezco bizitza santu bat; ta Zu neure Bitarteco poderosoa neugaz zareala, zeure besoetan, Ama Birjinearen amparuan, ta Iesusen Biotzean, eriotzan neure arimea emoteco grazia: ta Nobena onetan escaten deutsugun mesedea, gueure salbaziñoraco baldin bada. Amen.

*Emen fede bizi, ta esperanza osoagaz bacochac bere biotzean, gura daben mesedea Aita San Ioseri; ta Ama Semeei escatuten deutse. Guero Santuari Eleisseac eguiten deutsan Oraziño au esaten da.*

*Aña:* Iesusen Ama Maria Iose santuagaz desposaduric egoala, Aita Eternoaren Semea, Espiritu Santuaren graziaz bere sabelean ebala aurquituzan.

℣. Iaincoac Iose Santua eguin eban bere Echeco Iaun andi.

℟. Bai ta bere Ondasun guztien iaube, ta Aguintari.

ORAZIÑOA.

O Iesus, gueure Iaincoa, gueugatic Guizon eguina, ta zeure Aita Eternoac Iose Santuaren contura emon zinduzana. Zeure Ama guztiz santuaren Esposo onen amore, ta erreberen-

ziagaiti, guc merezi ez doguna, arren iguzu, Iauna: bere, ta zeure Amaren amparoan, zeure grazian beti bizi gaitean. Amen.

*Modu onetan Nobena au eguitenda; baña bigarren Orazińoa, egun bacochean urrengoetatic bat artuten da.*

**Bigarren eguna.**

Curutze santuaren.....—Acto Contriziñozcoa.—Egunoraco orazińoa.

Neure Iesus, Goiaingueru guztien Iauna, berei zeure gloriraco, ta gueure salbaziñoraco direan eguitecoric andienac zuzenetea aguindu deustezuna, Espiritu eraguilla oneen mere-

zimentuac opa deutsudaz, eta zeure Aita usteco San Iose gloriosoarenac, bada oni Goiaingueru estimaduari leguez Aita Eternoac bere gloriaraco, ta gueure oneraco munduan secula izan dan, ta izangodan, eguitecoric andiena, edo Zeu Iaincoaren Semea Guizon eguinic iaio zineaneti bere contura artutera fiadu eutsun. San Iose maite bacarrari onetan eguin zeuntsan onra andiagaiti, arren indazu Iauna, zeure Legue santuco neure obligaziño guztiac, Zeuc gura dozun leguez, cumpliduteco grazia,

ta Bederatziurren onetan esca deutsugun faborea, zeure gloriraco, ta gueure salbaziñoraco baldin bada. Amen.

*Iru Aita gure, Agur Maria ta Gloria.*

Azqueneraco oraziñoa...

**Irugarren eguna.**

Curutze santuaren.....—Acto Contriziñozcoa.—Egunoraco oraziñoa...

Neure Iesus Angueru Prinzipaduen Iauna, oneei beste Angueruacaz batera, gueure salbaziñoaren contu euquitea aguindu zeuntzen. Gueure arimen zeloz beterico Espiritu oneen merezimentuac opa deutsudaz, eta zeure

Aita usteco San Iose gloriosoaenac, bada onec guztien salbaziñoraco bestec baño gueiago eguin eban, Zeu Seincho Iaincozcoa bere contura artu, ta azi zinduzanean. Iose santuaren amodioagaitic, arren indazu, Iauna, neure, ta beste guztien salbaziñoaren egarri andi bat, Zeu neure biotzean beti euqui, ta nic, eta mundu guztiac Zeu beti amaduteco grazia: ta Bederatziurren onetan esca deutsugun faborea, zeure gloriraco, ta gueure salbaziñoraco baldin bada. Amen,

*Iru Aita gure, Agur Maria ta Gloria.*

Azqueneraco oraziñoa...

**Laugarren eguna.**

Curutze santuaren.....—Acto Contriziñozcoa.—Egunoraco orazinoa...

Neure Iesus Anguerù Potestadeen Iauna, oneei demoniñoac mendetuteco ta lotuteco escu, ta indar chito andia emon zeuntseen. Espiritu poderoso oneen merezimentuac opa deutsudaz, eta zeure Aita usteco San Iose gloriosoenac, bada oni infernuco guztien ganean zeure escu, ta birtute Iaincozcoa emon zeutsan, zeure Eche, ta famili sagradua ezetan bere lortu ez eguian. Aita San Ioseren

bidez, ta escuti arren indazu Iauna zeure grazia, ta indarra deabruen tentaziño guztien contra esquergaro peleetaco neure bizitzan, ta arabere gueiago eriotzaco orduan eta neure San Iose maitea alboan dodala, bere escuetan neure arimea emoteco: ta Bederatziurren onetan esca deutsugun faborea, zeure gloriraco, ta gueure salbaziñoraco baldin bada. Amen.

*Iru Aita gure, Agur Maria ta Gloria.*

Azqueneraco oraziñoa...

---

**Bostgarren eguna.**

Curutze santuaren.....—Acto Contriziñozcoa:—Egunoraco orazińoa...

Neure Iesus Angueru Birtuteen Iauna, oneei milagroric andienac, ta mirarizco gauzac munduan eguiteco birtutea emon zeuntsen. Espiritu miraguilla onen merezimentuac opa deutsudaz, eta zeure Aita usteco San Iose gloriosoarenac; bada milagroric andienac eguiteco criatura guztiac obediten eutseen, icusiric Zeu guztien Eguilla ta iaubea Ioseren obedienzian añ pozic zengozala. Mirarizco

zeure umiltasun onegaiti indazu Iauna grazia, zeure borondate santuari neurea gauza guztietan amodioz menderateco, orrelan Zeuc neure ariman zeure milagrozco graziaric andienac eguiteco, zeure misericordiaz prestadu nadin: eta Bederatziurren onetan esca deutsugun faborea, zeure gloriraco, ta gueure salbaziñoraco báldin bada. Amen.

*Iru Aita gure, Agur Maria ta Gloria.*

Azqueneraco oraziñoa...

**Seigarren egunа.**

Curutze santuaren.....—Acto Contriziñozcoa.—Egunoraco oraziñoa...

Neure Iesus, Angueru Dominaziñoen Iauna, oneei beeragoco beste Angueruei aguinduteco poderioa emon zeuntseen, eurac Zeugazco umiltasun andian beti dagozala. Espiritu guztiz altu oneen merezimentuac opa deutsudaz, eta zeure Aita usteco San Iose gloriosoarenac; bada zeure famili sagraduaren Buru, ta Aguintari zala onraric andien onetan, guztietaric

umilleena izan zan. Iose santuaren dicha parebagaco onegaiti indazu, Iauna, Zeuc gura dozun eguiazco umildadea, Zeu, ta zeure Ama maitea leguez, ni bere dicha andiz, zeure Legue santuari osoro menderatuteco: ta Bederatziurren onetan esca deutsugun faborea zeure gloriraco, ta gueure salbaziñoraco baldin bada. Amen.

*Iru Aita gure, Agur María, ta Gloria.*

Azqueneraco oraziñoa...

---

**Zazpigarren eguna.**

Curutze santuaren.....—Acto Contriziñozcoa.—Egunoraco oraziñoa...

Neure Iesus Angueru Tronoen Iauna; onetan, zeure Maiestadearen Lecu, edo Tronoan leguez iarri, ta zeure Anditasunac atsedeten daben. Zorioneco Espiritu oneen merezimentuac opa deutsudaz, eta zeure Aita ustecoSan Iose gloriosoarenac; bada onec bere beso garbietan zeure Maiestade andia Seincho gozo eguinic artu, ta zeuc atsedon, ta bioc atseguinic andie-

nac euqui zenduzan, Zeuben bioen arteco poztasun zeruco orreecgaiti indazu Iauna grazia neure biotza umiltasun ta amodio garbiz betea euquiteco, ta Zeu, neure atseguin bacarra, bere iar lecuan luguez neugan beti egoteco, ta Bederatziurren onetan esca deutsugun faborea, zeure gloriraco, ta gueure salbaziñoraco baldin bada. Amen.

*Iru Aita gure, Agur Maria ta Gloria.*

Azqueneraco oraziñoa...

**Zortzigarren eguna.**

Curutze santuaren.....—Acto Contriziñozcoa.—Egunoraco oraziñoa...

Neure Iesus Querubin Angueru iaquitunen Iauna; oneec zeure azquenbagaco iaquituriaz añ ugariro bete izan zenduzan. Zeure arguitasun ederrez apainddurico Espiritu oneen merezimentuac opa deutsudaz, eta zeure Aita usteco San Iose gloriosoarenac; bada oni Zeu ondo gobernateco, zeure Echeco Iaunari leguez: Misterio zerucoen aguermena, ta bear zituan zeruco ar-

guiac emon zeuntsazan. Zeure Aita maite onegaiti indazu Iauna, santuen iaquituria, edo zeure borondatea neure biotzaren erdian beti euqui, ta ondo gordeetaco: ta Bederatziurren onetan esca deutsugun faborea, zeure gloriraco, ta gueure salbaziñoraco baldin bada. Amen.

*Iru Ata gure, Agur Maria ta Gloria.*

Azqueneracò oraziñoa...

**Bederatzigarren eguna.**

Curutze santuaren.....—Acto Contriziñozcoa.—Egunoraco oraziñoa...

Neure Iesus, Serafin, edo amodiozco Angueruen

Iauna; oneei zeure Ontasunac amodiozco su, ta garrac, Zeu amaduteco emon zeuntsezan. Espiritu errassegui, edo abrasadu oneen merezimentuac opa deutsudaz, eta zeure Aita usteco San Iose gloriosoarênac, bada au Serafin guztiac baño zoriobacoa leguez, Zeu icusi, adoradu, ta laztan gozoen artean bere besoetan artu, ta zeure amodioric gozoenean urtutenzan. Bioen arteco amodio iaincozco onegaiti indazu, Iauna. Zeu neure amodiozca Iaungoico laztan bacarra biotz guztiti, ta gauza guztien

ganean, bizitzan, eriotzan, ta beti amaduteco grazia: eta Bederatziurren onetan esca deutsugun faborea, zeure gloriraco, ta gueure salbaziñoraco baldin bada. Amen.

*Iru Aita gure, Agur Maria ta Gloria.*

Azqueneraco oraziñoa...



# FAMILIA SAGRADUAREN

## DEBOZIÑOA.

---

JESUS, MARIA, TA JOSE, JOAQUIN, TA ANA:

Famili sagraduan lurrean izan zirean, ta orain zeruan direan bost Persona sorionecoenac dira. Onei debozińo andi bat beti euqui bear deutsezu, aşcotan dei eguin, ta egunean egunean, gura badozu esan eguiezu fedeaz, ta biotzeti Orazińo au.

## ORAZIÑOA.

Gueure Iaungoico guztiz ona, zeure Semea gugaiti Guizon eguiteco, ta lurrean aguertuteeo, Ama Biriinearen Esposo, ta Gurasotzat, Iose, Ioaquin, ta Ana, munduco guztien artean auqueratu, ta zeure bendiziñoz bete zenduzana. Iesus, Maria, ta Iose, Ioaquin, eta Ana, zeure atseguin andieneco bost Persona sagradu oneen eguiazco deboziño, ta amodioa iguzu: eta gueure culpaegaiti mereziten ez doguna, orreen bitartez, ta amorez, zeuc Aita, zeure

Seme, ta Espiritu Santuagaz emon eguiguzu, Zeu, gueure launa emen beti amaduteco, eta aecaz batera zeruan alabaduteco. Amen.

*Guero esan bost Agur Maria egun guztietan.*

Seme, ta Espiritu Santua-
gaz emon equiguzan, Zeu,
quenre launa emen beti
amadutzeco, eta zeozz bate-
ra zeruan alabadutzeco.
Amen.

Guero esan bost Agur Maria
gure gogotan.